

begira



35 zk.
2015eko abendua


ULMA



ULMA Taldearen
elkartasunak eta
konpromisoak
krisiaren eragina
jasan duten pertsonak
babestu ditu

ULMA Taldeko beste
talentuak





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Conveyor Components
PERUMIN azokan.




ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Packaging
IBA 2015 erakustokian.



AURREZ AURRE.
BRAD CHOI, ULMA Pipingeko
ordezkari komertziala Hego
Korean.



ERREPORTAJEA.
ULMA Taldeko beste talentuak.



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Essential Compositions
enpresako fatxada zaharberritzen
ari da **Gandian**.

2015eko abendua

04 albisteak eta gaurkotasuna
ULMA Agricolak Ekialde Hurbileko
Nekazaritza azokarik handiengan
parte hartu zuen

ULMA Inostruck: Kalitatearen bermea

Victor Grifols, Grifols taldeko
exekutibo nagusia, ULMA Taldean
bisitan

Logistikaren glamourra San
Petersburgoraino heldu da ULMA
Handling Systemsen eskutik

15 aurrez aurre
BRAD CHOI, ULMA Pipingeko
ordezkari komertziala Hego Korean

16 erreportajea
ULMA Fundazioa,
beste urte bat elkartasunean buru-
belarri

18 erreportajea
ULMA Taldearen elkartasunak eta
konpromisoak krisiaren eragina
jasan duten pertsonak babestu ditu

20 erreportajea
ULMA Taldeko beste talentuak

22 agenda eta iradokizunak



KOLABORATZAILE TALDEA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Romu Artecheta eta Karlos Alzola.

Argitaratzailea:

Grupo ULMA S. Coop.,
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.
20560 OÑATI.

Tel.: 943 25 03 00.

Fax: 943 78 09 17.

Posta elektronikoa: begira@ulma.com.

Diseinua eta maketazioa:

Marka, Komunikazio eta EES Arloa.

Inprimategia: Gertu S. L.

Euskarazko itzulpena: EMUN Koop.E.



Paper ekologikoa

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Mitsubishi EDiA EXek Red Dot Desing Award 2015 desiratua irabazi du

ULMA Orga Jasotzaileak-ek Espainiako merkaturan berak bakarrik banatzen duen Mitsubishi EDiA EX orgak **Red Dot Design Award 2015** sari prestigiotsua irabazi du. Sariak diseinua berrikuntzaren alderdi integral gisa duten produktuak errekonozitzen ditu 1995etik. Horrela, Mitsubishi Forklift Trucksek bat egiten du saria lortu duten enprekin, hala nola, BMW, Apple, Porsche eta Boserekin.

Epaimahaiko 38 kideek gidatzeko esperientzia baloratu zuten, Mitsubishien Europako sare osoak egindako lanaren emaitza, zeinak, diseinu taldearekin koordinatuta, orga elektrikoei buruz orain arteko ikerketarik handiena egin baitu. Askotariko enpresetako arduradun eta langileei egindako kontsulten emaitza izan zen EDiA EX orga; 80 V-eko orga kontrapisatu elektrikoa, esparru txikietan erraz mugitzen da, eroso, intuitiboa eta gidatzen erraza da, eta barruan zein kanpoan berehalakoan erabil daiteke, doikuntza edo moldaketarik gabe.

Horri guztiari gehitu behar zaio norabide bakarrek konfigurazioa,

bere ardatzean biratzeko gaitasuna duena, eta horrek aurrekaririk gabeko kontrola bermatzen du, baita azalera labainkorretan ere. Halaber, Bihurguneak Kontrolatzeko Sistema Adimenduna baloratu zuten. Kontrol sistema horrek segurtasun handia ematen dio gidariari, pneumatikoen higadura murrizten du eta apalategiekin egindako talkengatik sortu daitezkeen kalteak mugatu. Hala ere, daitekeena da epaimahaiarentzako alderdi tekniko nabarmenena Gidatze Sistema Sentsitiboa izatea (SDS edo Sensitive Drive System). Sistemak produktibitatea handitzen laguntzen du lehen momentutik, gidariaren eta orgaren artean ia berehala sortzen den konfiantza giroari esker. *



ULMA HANDLING SYSTEMS

Logistikaren glamourra San Petersburgoraino heldu da ULMA Handling Systemsen eskutik



San Petersburgoko (Errusia) Au Pont Rouge merkataritza zentroa izango da ULMA Handling Systemsen karrusel horizontala ikusi ahal izango den erakusleio erakargarriena.

Biltegiatze automatikoko sistema hori Errusiako lurrindegia eta kosmetika enpresa ezagun baten bihotzean egongo da. Bertan, bezeroek nahi duten produktua eskatu eta karruselak eskaera nola ematen dien ikusi ahal izango dute. Horrenbestez, ULMAren karrusela ere elementu erakargari bihurtzen da Merkataritza Guneko publiko zabalarentzat, bezeroak nahi duen produktua azkar, zehatz eta seguru entregatzea ahalbidetzen baitu.

ULMAren biltegiatze horizontaleko sistemak bereziki diseinatuta daude eskariak prestatzeko eta biltegiatze automatikoa egiteko; horien funtzioak aukera ematen du produktibitate ratioak ahalik eta gehien handitzeko, eta mugimendu kopurua, garraio lanak eta biltegiatze espazioa murrizteko.

Proiektua farmaziaren sektorean espezializatuta dagoen Errusiako REPHARMA enpresarekin lankidetzan egin da. *

ULMA PACKAGING

ULMA Packaging IBA 2015 erakustokian



Okindegi, gozotegi eta txokolategiak bezalako sektoreen erreferentziako azoka München egin zen, irailaren 12tik 17ra.

ULMA Packagingek bi instalazio erakutsi zituen, eta standetik igaro ziren bisitari guztien interesa bereganatu zuten.

Alde batetik, opiltegiatze soluzio osatu bat erakutsi zuen, honela osatuta:

- Delta D8 bi roboteko twin zelula, produktua flow packean kargatzeko.
- ATLANTA (HFFS) flow pack biltzailea, enbase unitarioetarako.
- VTC 700 (VFFS) biltzaile bertikala bigarren mailako enbaseetarako, poltsetan batuta.

Erakustokiaren beste aldean FR 500 flow pack biltzailea erakutsi zen, zeina abiadura ertain-handiko lerro automatikoetan integratzeko diseinatuta dagoen, 800 packs/min lortzeko ahalmenarekin. Bere eraikuntza sendo eta fidagarritasun handiari esker, makina hau enbasatzeko soluzio ezin hobea da ogi, gozo, opil, galleta eta konfitegiatzeak.

Halaber, enbasatzeko eta automatizatze soluzioen katalogo berria ere aurkeztu zen, ogi, opil, galleta eta gozoen sektoreentzat. Katalogoan, enbasatzeko soluzioez gain, sektore horiek ULMA bezalako hornitzaileei automatizatze eskatzen dizkieten hainbat soluzioren layoutak ere erakusten ditu. *

ULMA TALDEA

Azaroaren 12an 40 bat PYME izan ziren ULMA Taldea bisitatzen, Banco Santanderren eskutik

Banco Santanderren iritziz, ULMA Taldeak "PYME izateko enpresa multinazionala izatera" egindako ibilbidearen esperientzia arrakastaroko erreferentzia eta eredu egokia izan daiteke etorkizunean multinazionala izateko asmoa duten egungo PYME-entzat.

Hori dela eta, azaroaren 12an, Banco Santanderreko bezero diren 40 bat PYME izan ziren Oñatin, ULMA Taldeko instalazioak ezagutzen.

Han, Iñaki Gabilondok ULMA Taldea eta bere Negozioak aurkeztu zituen, nabarmenduz ULMA esperientzia bakarra baino esperientzia ugari dituela, Taldearen barruan

multinazionalak ez ezik, PYME-ak ere badaudelako. Aurkezpenean, ULMAren garapenean gakoak azaldu zituen, ULMA Negozioak egiteko duen Kultura definitzen duten enpresa arloko alderdiak zein diren azpimarratuz.

Halaber, Aitor Ayastuy ULMA Constructioneko gerenteak bere Negozioko Nazioartekotze prozesua azaldu zuen.

Bisitaren amaieran, Master Class honetako parte-hartzaileek ULMA Taldeko Sustapen Berrien eta ULMA Packaging Technology Center-en instalazioak ezagutu zituzten, eta, sustatzaileek beraien esperientzia baliotsuen berri eman zieten. *



ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruck: Kalitatearen bermea

TÜV Rheinlandek ULMA Inoxtrucken barne prozesuak ikuskatu berri ditu, eta ziurtatu egin du kalitatea segurtatzeko dugun sistemak **ISO9001: 2008** araua zuzen betetzen duela. Bestela esanda, gure bezeroen eskakizunak betetzen direla bermatzen duen sistema bat daukagu gela zuriarako ekipamendu higienizagarrien diseinuari eta fabrikazioari dagokionez, bai elikagaien industriarako bai laborategi eta farmaziako enpresetarako.

Prozesu guztiak ikuskatuz bi egun eman eta gero, TÜV Rheinland landu duen amaierako txostenak alderdi hauek identifikatu ditu indargune moduan: 5 urterako Plan Estrategiko bat edukitzea eta hedatzea, prozesuen barne/kanpo Kalitate



kontrollatzea eta hobetzeko planak egitea, eta dagoen ERPan kokatutako dokumentuen trazabilitatearen erraztasuna.

Espero dugu Kalitatearen ziurtagiriak lagundu egingo digula gure produktuak zabaltzen, batez ere Alemanian, negozioa nazioartean hedatzeko politikaren barruan. *


ULMA PIPING

Aeronautikarako homologazioa lortzeko auditoria gainditu du ULMA Lazkao Forgingek

2011. urtean zehar ULMA Lazkao Forgingerako Plan Estrategiko Komertziala definitu zen, eta horren barruan zegoen Sektore Aeronautikarako forjaren garapena.

Aeronautikaren sektorea oso sektore berezia da, eta fabrikazio prozesuaren eta horren kontrolak %100 bermatu behar dira.

Azken urteetan ULMA Lazkao Forgingek forjako simulazio eredu bat garatu du, INCO 718an forjatutako piezaren, azken mikroegitura iragarri ahal izateko. Simulagailua gaur egun baliozkotuta dago, eta ITPrako atek ireki dizkio ULMA Lazkao Forgingi, eta ibilbide horri esker gertuago gaude Rolls Royceren azken homologaziotik (Rolls



Royce munduko liderra da hegazkinen turbinen fabrikazioan). Urte honen bukaeran izango da homologazioa, aurreikuspenen arabera.

ULMA Lazkaoko eta ULMA Pipingeko bulego teknikoak eta kalitatekoak garatzen ari dira elkarlanean lan hori guztia, eta garapen lan horretan Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren babesa dute; izan ere, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, ITPrekin batera, proiektu batean inplikatu da ULMA aeronautikarako prestatzeko eta homologatzeko asmoarekin.

Trebakuntza prozesuaren barruan, ULMAko ekoizpen prozesu eta bitartekoak aeronautikako sektoreko

estandarretara egokitzeko lanak daude. Bien bitartean, ULMA Lazkao Forgingek jada gainditu ditu sistemaren auditoriak, eta EN9100 homologazioa eskuratu du aeronautikako sektorerako pieza forjatuen fabrikaziorako. Ekoizpen bitartekoaren auditoria ere gainditu du, ITPren eskutik, eta horrekin ULMA sektorerako bideratutako forja lanak egiteko baliozkotuta dago.

Behin mugari hori gaindituta, Tratamendu Termikoaren departamentuaren homologaziora igaroko da, NADCAP egiaztagiria lortzeko helburuarekin (aeronautikako tratamendu termikoen egiaztagiri espezifikoa).

ULMA CONSTRUCTION

Kadizko badia gaineko zubia, neurri eta eskakizun tekniko handiko proiektua

Kadizko badia gaineko zubia, herriak "Peparen Zubia" esaten diona, munduko zubirik handienetakoa da, eta bigarren altuena, San Frantziskoko Golden Gate mitikoa ere gainditzen duelarik. 3.082 metro luze, 33 metroko taula zabalera eta 69 metro altu den galiboarekin, zubi berriak tamaina handiko ontziek nabigatzea ahalbidetuko du.

Proiektuan hainbat zati egin ziren, 1.079 metroko taularekin, eta dimentsio handiko sekzioa dute, barne geometria konplexu eta trapezio formako kanpoaldea, 10 eta 30 metroko alde paraleloak eta 2 eta 3 metro bitarteko altuera aldakorrarekin.

Zatietako baterako, ULMA Constructionek sendotasun, segurtasun eta malgutasuna bermatzeko apeo sistema bat erabili zuen, zubietarako ENKOFORM H-120 enkofratuarekin batera. Sistema tradizionalaz gain, dimentsio handiko

hegalen orga bat erabili zen, 48 m zabal, 25 m altu eta 16 m luze.

Neurrieta konplexutasun tekniko handiko proiektu honen exekuzioaren arrakastaren oinarrian dago ULMA Constructioneko taldeek izan duten koordinazioa, izan ere,

taldeak planifikazioaz, ingeniari-tzaz, obrako laguntzaz eta soluzio global bat garatzeko produktu estandarrek erabiltzeaz arduratu dira.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Kanalak FC Barcelonaren Camp Nouko instalazioetako sarrera berrian

FC Barcelonaren instalazioen sarrera berria orain 14 Sarbidean dago, eta Kluba auzora zabaltzen du eta auzokideekiko interakzioa hobetzen du, sarrera libreko espazio publiko berriekin. Proiektuak duintasuna eman dio FC Barcelonaren instalazioetako sarrera nagusiari, Les Corts esparruan, eta esparruko sarbide nagusiaren eta estadioko tribunako sarreraren arteko konexioa errazten du, bertatik sartzen baita ikusleri gehien; gainera, ibilgailuen eta oinezkoen arteko elkarbizitzan sortzen diren arazoak konpontzen ditu, bai egunerokotasunean, bai partida dagoen egunetan, eta, ondorioz, pertsonak seguruago sentitzen dira.

ULMA Architectural Solutionsek **MINI gamako** kanalak instalatzea aukeratu zuen 400 ml baino gehiagorako, izan ere, bereziki diseinatuta daude eta ezin hobeto erantzuten diote proiektu jakin horrek planteatzen dituen eskakizunetarako.

Zehazki, M200K kanal modelo erabili da, FN200KCCM fundizioko sareta nerbidunarekin.



ULMA AGRICOLA

Letxuga bizia hazteko berotegia

ULMA Agricola berotegien zabalkunde bat instalatzen ari da Ebro Garaiko Erribera eskualdean kokatuta dagoen eta endibiak, letxugak, tomateak eta landare aromatikoak ekoizten dituen enpresa ezagun batentzat.

ULMA Agricola egiten ari den instalazioak beteko duen espazioa letxugak hidroponian ekoizteko erabiliko da. Zehazki, letxugak ur baltsetan haziko dira.

Hidroponia oro har lurrik gabeko laboreei aplikatzen zaie, hau da, ez dute lur naturalik izaten. Hidroponian zabalduen dauden eta ezagunen diren aukeretan hainbat substratu mota erabiltzen dira landareei eusteko, eta bertan hazteko behar dituzten nutrienteak ematen zaizkie.

Hidroponia eta berotegiaren erabilera ona uztartuta, zeru zabalean egindako laboreetan lortutako baino askoz errendimendu handiagoak lortzen dira.

Nafar enpresa ezagunak hainbat urte daramatza hain zabalduta ez dagoen hidroponia mota bat erabiltzen. Letxugak ur baltsetan hazteko teknika bat da. Landareen artean lehiarik ez dagoenez,

homogeneoago eta osasuntsuago hazten dira, eta ondorioz pestiziden erabilera murrizten da. Produktua sustrai eta guzti merkaturatzen da eta, ondorioz, fresko mantentzen da askoz denbora gehiago, eta horregatik esaten zaio letxuga bizia. Urte bat baino pixka bat gehiagoan hainbat letxuga bizi mota jarri ditu merkatuan, eta kontsumitzaileak oso harrera ona egin die.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek INDUSTRY 4.0 iraultzaren esku utzi du bere etorkizuna

Etengabeko berrikuntzaren estrategian murgildurik, ULMA Handling Systemsek INDUSTRY 4.0 iraultza berriari ireki dizkio bere ateak: etorkizuneko industri moduan dator hori, eta informazioaren teknologiararen (IT) mundu birtualak, makinaren mundu fisikoak eta Internetek bat egiten dute bertan.

Hainbat zentro teknologikorekin lankidetzan, ULMA Handling Systems gaur egun hainbat proiektu garatzen ari da buru-belarri INDUSTRY 4.0 ziguilarekin, Pertsona-Makina lankidetzan bidezko ingurune sistemak sortzera zuzenduta, edo analisiak egiteko software bat egitera, biltegi adimendunak sortzen duten datu kopuru eskerga informazio erabilgarri eta baliagarri bihurtzeko, erabakiegokiak hartu ahal izateko. Proiektu horien garapenari esker denbora errealeko monitorizazioa eta interakzioa egin ahal izango da, eta abantaila nabarmenak lortuko dira prozesu logistikoen produktibitateari eta efizientziari dagokionez.

Roberto Arriaran ULMA Handling Systemseko Berrikuntza zuzendariak segurtatu duenez, "industri iraultza berri honen erronka produktu, makina, balio kate eta negozioen digitalizaziotik eta interkonexiotik dator, IKTak prozesu logistiko osoan digitalizatzea eta integratzea ahalbidetzen baita". "INDUSTRY 4.0 kontzeptuak esan nahi du gure enpresa enpresa adimendun bihurtzea, hau da, emaitzarik onenak lortzeko funtsezko informazioa kudeatu ahal izatea, horrek zuzenean eragiten baitio bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitateari", gehitu du Arriaranek.

INDUSTRY 4.0 balio katea antolatzen duen berri baten gisara aurkezten da, eta bere helburua da «soluzio intralogistiko - smart warehouse» kopuru handi bat martxan jartzea, prozesu logistikoen beharretara hobeto egokitu ahal izateko, eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko. »



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

ULMA Embedded Solutionsek bere zerbitzuen eskaintza handitu du

ULMA Embedded Solutionsen hainbat arlotako adituak ditugu gure bezeroei soluzio osatuak eskaintzeko. Gure partner sare zabaltzen jarraitzen dugu, eta enpresa berri bat daukagu, The Reuse Company. Enpresa hori Madrilgo Carlos III Unibertsitatean sortu zen, orain dela 15 urte baino gehiago. Gaur egun mundu osoan egiten du lan, kalitate handiko betekizunak betetzen laguntzen duten produktuak eskainiz.

Kalitateko betekizunak izatea funtsezkoa da bezeroaren beharrak aseko

dituen produktu bat garatzeko. The Reuse Company (TRC) gure partnerrak betekizunak idazteko prozesuan laguntzen eta beraien kalitatea analizatzen duten erremintak garatzen ditu.

ULMA Embedded Solutionsek, hemendik aurrera, produktu horiei buruzko aholkularitza zerbitzuak eskainiko ditu. Teknologia hori integratuta, bezeroak trazabilitate osoa lortuko du prozesuaren garapenaren lehenengo faseatik bertatik, eta erroreak murriztu eta lana arinduko du. »

ULMA TALDEA

Victor Grifols, Grifols Taldeko exekutibo nagusia, ULMA Taldean bisitan



Victor Grifols farmazia eta ospitale sektorean espezializatuta dagoen GRIFOLS Taldeko lehendakari, kontseilari ordezkari eta exekutibo gorena da, eta ULMA Taldea bisitatu zuen joan den urriaren 29an. Victor Grifolsek eta bere taldeak ULMA Taldeak Oñatin dituen instalazioak bisitatu zituen, eta, bertan, ULMA Taldeko zuzendari Iñaki Gabilondok 55 urte inguruko ibilbidea duen Taldearen dimentsioa, bolumena, negozioak eta jatorria azaldu zizkien.

ULMA Taldeko Sustapeneko zuzendari Rafa Amasorrainek aipamen berezia egin zien ULMAren Sustapen Zentro propioari buruz, jarduera eta promozio berrien bultzatzaile nagusia den heinean. Halaber, ULMAk Unibertsitateekin eta Ikerketa eta Teknologia Zentroekin duen sare berezia azaldu zuen, horrek, zalantzarik gabe, balio erantsi esanguratsu eta bereizgarria ematen baitio.

Josetxo de Frutosek, berriz, Osasunaren kontzeptua azaldu zuen, bere Negozioetako batzuen eta sustapen berrien jardueren lehenetsuneko erreferente moduan: ULMA Packaging, ULMA Handling Systems, ULMA Embedded Solutions, ULMA Inoxtruck, Irudi Mediko Ez Inbasiboa...

Hori guztia multinazional katalanaren eta ULMAren arteko lankidetzan gure posibleak bilatzeko, etorkizuneko proiektu berrietarako. »

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Essential Compositions enpresako fatxada zaharberritzen ari da Gandian

Instalazioen irudiaren metamorfosi ikusgarria proiektu horretarako berriaz sortutako diseinu batean oinarritzen da.

Essential Compositions lurrinen fabrikazioaren sektoreko enpresen erreferente nagusietakoa da. Ikerketa eta berrikuntza dira enpresaren bi zutabe nagusiak.

Balio horiek enpresaren instalazioak berritzeko eta zabaltzeko beharra eragin dute. ULMA Architectural Solutionsek zuzendu du horiek diseinatzeko proiektua, GOMIS INTERIORISME firmako barrualdeen diseinatzaile Isabel Gomisekin batera. Erabateko erronka lurrinen fabrikazioaren industriari dagokionez, eta emaitzak transmititu, hunkitu eta seduzitu egiten du, bere pertsona talde osoaren balioa agerian jarritz.

Konpainia zaharberritzeko eta handitzeko proposamena bere instalazio guztietara hedatzen da, izan bulegoak edo laborategia zein fatxada.



Diseinuaren proiektu osoak balio erantsia eskaintzen du, enpresaren ikuspegi garaikidea emanez. Fatxadan, ULMAk polimero hormigoizko fatxada aireztatu bat aukeratu du, proiekturako zuzenean diseinatutako bolumen batzuk sortzen dituena. Diseinuaren helburua zen konpainiaren esentzia transmititzea, modernitate eta berrikuntzaren balioetan oinarrituta.

Horretarako, ULMAk AGUA egitura erabili zuen, CREATIVE gamako zuloekin eta M24 kolore zurian.

Proiekturako polimero hormigoizko neurri askotako plaka formatuak fabrikatu ziren ad hoc. »

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Components PERUMIN azokan

ULMA Conveyor Components PERUMIN meatzaritzako azokan izan da, Arequipa hirian, irailaren 21etik 25era.

Peru herrialde estregikoetako bat da UMA Conveyorrentzat, nazioartekotze prozesuari dagokionez.


Peruk 1,3 milioi tona metriko kobre

ekoitzi zituen 2013an, eta munduko produkzioaren bigarren postuan kokatu zen. Peruko ekoizle nagusia Antamina da (461.000 tona metriko), eta ondoren daude Southern Peru (308.000), Cerro Verde (261.000) eta Antapaccay (151.000). Apurimac eta Cusco departamentuak, Peruko mendilerroaren hegoaldean, metal horren inguruko operazio berriak hartzen ari dira.

ULMA Conveyor Components dagoeneko lankidetzan ari da Peruko lau mea enpresa garrantzitsuenetako biek. Azokan urratsak egin zituzten lankidetzan beste 2 enpresetara zabaltzeko, baita ere martxan jartzen ari diren operazio berrietarako.

Azokaren balantzea oso positiboa izan da, hartutako bisiten kalitateagatik zein lortu diren negozio aukerengatik.

2014an filial komertziala sortu eta gero, aurtun talde komertziala eratu da. Azokan talde osoa egon zen presente. »



ULMA PACKAGING

ULMAK SIENNA flow pack biltzailea birdiseinatu du

ULMA Packagingek, etengabeko entzuketaren bitartez, etengabeko hobekuntzara zuzentzen ditu bere jarduerak, eta hori enbasatzeko makinaren garapenen aurrerapenetan ikusten da. Aurrerapen horiekin prestazioak nabarmen hobetzen dira, behar bakoitzerako irtenbiderik onena aurkitzeko.

ULMA Packagingek hainbat aldaketa egin ditu bere SIENNA flow pack biltzailean, eta prestazio maila berria lortu du; ondorioz, makina hau oso modelo erakarra da hainbat sektoretara zuzendutako soluzioetarako, esaterako, barazkiak eta frutak enbasatzeko.

Hobekuntza aipagarrienetakoa da barailen buruaren birdiseinua. Sistema berriak sendotasun eta egonkortasun handiagoa ematen du, eta, garrantzitsuena: **kadentzia handiagoa**.

Buruaren diseinu berriak ahalmena dauka minutuko 75 enbaseko kadentzia lortzeko, inolako arazorik gabe, eta



horrek esan nahi du **produktibitatea %20-%25 handitu** daitekeela.

Beste hobekuntza bat makina biltzaileak duen kontrol berria da. Aurreko PLCaren ordez, PC industrialia erabiltzen duen kontrola jarri da (UPC), hori ere ULMA Packagingen osorik garatua.

UPC (Sienna)

PC industrial txertatua da, ardatzen eta mugimenduak kontrolatzeko orduan



doitasun handiagoa ematen duena. Doitasun handiago horrek mugimendu fluxu handiagoa lortzea ahalbidetzen du, eta, ondorioz, lehen aipatutako kadentzia hobetzea.

Halaber, UPCak hainbat abantaila ematen dizkio Siennari, aurreko kontrolak ez bezalakoak:

- Erabiltzeko erraztasuna hobetzea
 - Langilearen panelean eskuliburuak eskura izatea
 - Interfaze grafiko oso intuitiboa
 - Konektibitatea beste ekipamendu eta sistema zentralizatuekin, eta telezerbitzurako aukera
- SIENNA berriarekin, ULMA Packagingek enbasatzeko soluzio eraginkor eta produktiboa gehitu du bere biltzaileen katalogoan, bezeroen eskakizunei erantzuteko. "

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak, T-REX europar proiektuko M24 bileraren anfitrioi

T-REX Partzuergoak beste bilera bat egin zuen joan den irailaren 22an eta 23an Oñatin, proiektuan martxan diren ekintzen jarraipena egiteko helburuarekin.

Topaketaren ekintzen artean dagoeneko osatuta dauden lan faseak balioztatzea egon zen.

ULMA Orga Jasotzaileak negozio eredu berri bat eta floten kudeatzaile propio bat garatzeko ari da proiektuan parte hartzen, laguntza teknikoko zerbitzua hobetzeko informazio zehatza eta esanguratsua lortu ahal izateko, eta garatzen ari den prototipoarekin lortutako lehen emaitzen demo bat erakutsi zuen bertatik bertara.

Asier Agirregomezkortaren hitzetan, "T-REX proiektuak negozio eredu berrien

inplementazioa konbinatzeko testuinguru egokia eskaintzen du, eta, halaber, soluzio berritzaileak eskaintzeko, bai produktuetan bai zerbitzuetan".

ULMA Orga Jasotzaileak eboluzio etengabea dabil, sortzen den berritasun bakoitza aztertuz eta berritasunok bezeroen

jardueretan izan dezaketen eragina zehatz-mehatz kalkulatu. "



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA drainatze kanalak Santanderreko Gamazo Dike berrituan



Dikearen obrak 1.1 milioi euroko inbertsioa gainditu du, eta portuko espazio hori berreskuratu du herritarrentzat.

ULMA Architectural Solutionsek gunea berreskuratzen parte hartu du, bere **kanalen gama** zabaleko hainbat modelorekin hornituz. Hori guztia **ahalmen hidraulikoa optimizatzea, sistema erraz mantentzea eta erraz iritsi ahal izatea** bilatuz.

Zehazki, Multi V+ 150 gamako modeloak erabili dira, V sekzio optimizatukoak eta arrapalako kokapenarekin, eta antitokoi fundizioko sareak ere erabili dira (C250 karga klasea), oinezkoek erabiltzeko guneak estaltzeko elementuen irisgarritasunari buruzko araudiaren arabera.

Ibilgailu astunak sartzeko guneari dagokionez, kanal berdinak instalatu dira, baina **D400 karga klaseko** sareekin, ingurunearen premia funtzionalei baina baita ere estetikoari erantzuteko. Soluzio teknikoa, eskaintako malgutasuna eta egokigarritasuna eta inplikaturiko alde guztien **gogobetetze maila handia**



ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricolak Ekialde Hurbileko Nekazaritza azokarik handiengan parte hartu zuen

Saudi Agriculture azoka Ekialde Hurbileko nekazaritza azokarik handiena da. 25.000 bisitari profesional baino gehiago eta Ekialde Hurbil, Europa, Amerika eta Asiatik bertaratutako 350 erakusle erakartzen ditu, bertako enpresez gain.

Azoka urriaren 11tik 14ra egin zen, Convention & Exhibition Center Riad International zentroan (RICEC), 33 urte daramatza funtzionatzen, eta hazten jarraitzen du neurriari eta erakusle eta bisitari kopuruari dagokienez Saudi Arabiako Nekazaritza Ministerioaren babesa dauka.

Aurtengo edizioan, Saudi Agriculture azokaren hogeita hamalagarrena izanik, ULMA Agricolak erakusle moduan parte hartu zuen, eta, eskualdeko beharrei erantzuteko diseinatutako soluzioak erakustez gain, bezeroen iritziak eta behar berriak partekatu ahal izan dituzte, ohikoa ez bezalako esparru batean.

ULMA Agricolak urteak daramatza Ekialde Hurbilean proiektu garrantzitsuak egiten, eta, ondorioz, sektoreko kontsumitzaileek gehien eskatzen dituzten soluzioak eta elementuak ezagutzen ditu. Aurtengo ekitaldian eskualdean instalatu diren azken berotegietan arrakastarik handiena

lortzen ari den soluzioaren abantailak erakutsi dira. Cooling corridor da. Berotegi pean ekoiztutako laboreak hozteko beharrei erantzuteko diseinatu diren espazioak dira, eskualdeko klima oso zorrotza dela kontuan hartuta.

Cooling corridor izeneko espazioak sortuta berotegi barruan zirkulatzen duen airea ezin hobeto freskatzea lortzen da, eta klima egokia sortzen da barazkiak edo loreak landatzeko. Horretarako, instalazio osoan zehar nabe bat jartzen da zeharka, barruko aldean Cooling panelekin ekipatuta, eta berotegiaren kontrako kanpoko aldean xurgagailuak jartzen dira. Horri esker, panel hezeak zeharkatzen dituen kanpoaldeko airea ur molekular kargatzen da, hoztu egiten da eta, ondorioz, berotegi barruko temperatura murrizten du. "



funtsezkoak izan dira ULMA Architectural Solutionsek drainatzeko proposatutako soluzioa aukeratzeko.

Gamazo Dikea eta bere ingurunea zaharberritzeko lana Itsasketa-Arrantza Eskolaraino iristen da, 1,1 milioi euroko

inbertsioa eragin du eta Vías y Contratas enpresak gauzatu du, 10 hilabeteko exekuzio epearekin, eta guztira 13.833 metro koadroko azalera baten gainean. "

ULMA PACKAGING

Wimm Bill Dannek (PepsiCo Taldea) instalazio oso bat erosi du "Lambert" gazta enbasatu, kaxaratu eta paletizatze, shrink termokonformazioarekin

Altái urruneko eskualdean (Mendebaldeko Siberia) aurkitzen da gazta egiteko eskualdeko plantarik handiena, Rubtsovsk herrian, justu Kazakhstan, Mongolia eta Txinako mugan.

Ingurune horretan kontzentratzen da behi gazta bereziaren ekoizpena, eta, enbasatu eta gero, errusiar lurralde osoan eta sobietar errepublika ohietan banatzen da.

Ekoizpen planta hori gazta sektoreko enpresarik modernoenetakoa da Errusian. Guztiz automatizatu dago, eta ULMA Packagingekin adostu du gazta enbasatzea, shrink termokonformazio bitartez.

ULMAren soluzioak batu egiten ditu gazta enbasatzeko termokonformagailu, kartoizko kaxan karga robotizatua egiteko soluzioa zein amaierako paletizazioa.

Gazta, enbasatu eta gero, ur tunel batetik igarotzen da, berokuntza bidez enbasea aterarazteko (shrink enbasea). Ondoren, enbasea kartoizko kaxetan



sartzen da automatikoki, delta roboten bitartez, zeinak mosaiko desberdinak egiteko gai diren, kaxa desberdinen arabera.

Azkenik, paletizatzaile mekaniko baten bitartez, kaxen paletak egiten dira, amaierako hartzailearengana garraiatzeko. *

ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruck, emantzipatuta

2016aren hasieran ULMA Inoxtruckek bere bulegoak eta muntaketako instalazioak orain dela gutxi arte Laboral Kutxak Oñatiko Otaduin zuen biltegi/ artxibora aldatuko ditu. Bertan 1000 m2 baino pixka bat gehiago okupatuko du, eta etorkizunean bere jarduera ia beste 1000 m2 zabaltzeko aukera izango. 2010. urteaz geroztik, urte horretan hasi zelarik Taldeko Negozio Berrien Sustapen Zentroan, ULMA Inoxtruckek probetxu atera die ULMA Packagingen bitarteko eta zerbitzuei, eta, zeharka bada ere, baita ere horren zentro teknologikoan hartzen dituzten bisita ugari. UPTC, ULMA Berrikuntza eta ULMA Taldeko Departamentu Zentraletako pertsonen lankidetzak kalkulazina gabe



proiektu enpresarial honek ezin izango zuen aurrera egin. Hemendik eskerrak ematen dizkizuegu, bihotzez, eman diguzuen babes guztiagatik. Mila esker, denoi. *

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Componentsen Takraf Indonesia proiektua

ULMA Conveyor Componentsek arrabolak eta euskarriak hornitzen dizkio Takraf Alemania ingeniariari, Semen Indonesia zementu taldearen plantak handitzeko Indarungen (Sumatra) eta Rembangan (Java).

Proiektuak euskarri bereziak diseinatu behar izan ditu, garraiatzaileen kurba eta desnibel nabarmenak direla eta. ULMA Conveyor Componentseko bulego teknikoak lankidetzak sendoa izan du Takraf ingeniariarekin diseinatu egiteko.

Biztanleriak hirietarantz egin duen mugimendu demografikoaren ondorioz, eta kontuan hartuta apartamentuen eraikuntza eta azpiegitura falta, Indonesian zementuaren eskaera nabarmen hazten ari da. Pertsonako kontsumoa eskualdeko txikiena izanik (225 kg 2013an), datozen urteetan planta berriak egitea aurreikusten da.

ULMA Conveyor Componentsek dagoeneko eskari garrantzitsu bat eman zion talde berekoa den Semen Tonasari, 2008an, eta hurrengo proiektuetan ere parte hartzea espero du. *



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systems Banaketa Zentroa garatzen ari da Uruguako 3 laborategi farmazeutiko nagusiek osatutako D4rako

Uruguako D4 farmaziako produktuen banatzaileak Eskariak Biltegitzeko eta Prestatzeko azken belaunaldiko Sistema Automatiko bat dauka, ULMA Handling Systemsek diseinatu. Soluzio logistikoa Banaketa Zentro berri baten parte da, eta bertan parte hartzen dute Uruguako hiru Farmazia Laborategirik handienek.

Sistema logistiko berriak edukiontzia kudeatzeko prozesuak izango ditu, hiru Fine Stockerrek osatutako biltegitate automatikoa, eta eskariak prestatzeko sistema automatizatu bat, azken belaunaldiko PTL teknologiaz gain.

Sistema berriarekin, D4k malgutasunik handiena lortzeko apustua egiten du bere bezeroei erantzuteko eta, aldi berean, banaketa farmazeutikoaren merkatuaren bilakaerara egokitu ahal izateko.

ULMAren WMS sistema D4ren neurria egiten da, medikamentuen araudian definitutako erregulazio estatalak betetzeko

prestatuta dago, baita koarentenen edo medikamentu psikotropikoen kontrola egiteko ere, lagin automatikoak egiteko...

Zalantzarik gabe, ULMAren Ingeniaritza Integraleko lanak, D4rekin lankidetzan, proiektu honek argia ikusi dezan eta etorkizunean arrakasta izan dezan ahalbidetu du.

ULMA Handling Systemsek biltegitate diseinatu eta garatzen dituen sistemak irtenbide ezin hobea eskaintzen diote Farmazia eta Ospitaleetako Laborategietako biltegitate eta kudeaketa sistema konplexuari, segurtasuna eta produktuaren trazabilitatea oinarri-oinarriko parametrotzat hartuta. *



ULMA CONSTRUCTION

Soluzio handiak, Proiektu handiak

Urterako 1,6 milioi t zementu ekoizteko ahalmenarekin, Piuran kokatutako planta berria Latinoamerikako modernoena bihurtuko da.

ULMA Constructionek ekipamenduak eta sistemak hornitu ditu obrarako, siloak, toberak, biltegiak, prozesaketarako eraikinak zein planta barruko sarbideak eraikitzeko.

Materiala entregatzeko azkartasuna, sistemen segurtasuna eta horrelako obretan lortutako esperientzia funtsezkoak izan dira proiektua esleitzeko orduan.

ULMAk gauzatutako eraikin ugarien artean, zementuaren siloak 70 metroko altuera du, murriz zilindrikoak eta lauza konikoak. 10 metro altueran, kanpoko eraztunak BMK kontsolen bere sendoa behar zuen. Murriz zirkularretan konfiguragarriak, eta muntatzen errazak, COMAIN panelei eustez gain –esaterako,



eraztunaren enkofratua-, lanerako plataformak kokatu ahal izateko maila bat ere eraiki da, ferraila eta enkofratze lanak egiteko.

ENKOFLEX habe sistema ezin hobea da lauazko espazio interferentziadunak enkofratzeko, eta berdin geometria bereziarako. Sistema horixe aukeratu dute eraikinaren zatirik handiengan

lauza enkofratua egiteko. BRIOrekin konbinatuta, bai zinbria formari zein aldamiolari dagokionez, lauazko kargak eta pertsonen eta laneko ekipamenduen gainkargak jasan ditu.

ULMA Constructionek berretsi egiten du Peruko merkatuan duen lider posizioa, herrialdeko proiektu nagusietan parte hartuz. *

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak-ek FD40-55N kontrapisatu termikoa berritu du

MOTOR BERRI BAT DAUKA, IGORPENAK KONTROLATZEKO EUROPAKO GAUR EGUNGO ARAUDIA BETETZEKO ASMOZ.

ULMA Orga Jasotzaileak kooperatibak FD40-55N berritua aurkeztu du merkatuan, GRENDiA EX Mitsubishi kontrapisatu termikoen gamakoa, baina Perkins 854F motor berri batekin, hau da, Mitsubishien erantzuna 56 kW baino gehiagoko motorretarako (75 HP) Euro Stage IIIB araudia betetzeko. Lau zilindro trinkoko motorrak erantzuteko ahalmen handia dauka par eta potentziako dentsitate balio altuetarako.

Gama berrituak serietik dauka Diesel Kontrol Elektronikoa (EDC), Motorra Babesteko Sistema (EPS) eta diesel partikulen iragazkia (DPF), orgaren funtzionamendu arruntean erregenerazio automatikoa ahalbidetzeko, lan zikloa eten gabe, baita ere erreboluzio baxuetan ere. Prozesuari esker kanpora igortzen diren partikulak %90 murriztu



daiteke, eta horrek nabarmen laguntzen du ingurumena babesten eta Nox igorpenaren ia %50 murrizten du.



GRENDiA EX gamako bost diesel modeloen eraikuntza sendoa da, egonkortasuna, zurruntasuna eta babesa bermatzeko, funtzionamendu isil, gozo eta orekatuarekin, bere potentzi trenari

esker, zeina guztiz flotagarria den, bi abiadurako transmisioarekin: atzera martxa eta desplazamendua. Segurtasuna da bere ezaugarri nabarmenetako beste bat, serietik baitauzka **Plus Presentzia Sistema Integratua**; segurtasun uhalaz ohartarazteko argia eta aparkatzeko freno automatikoa alarmarekin, uneoro segurtasuna bermatzeko helburuarekin. *



ULMA CONSTRUCTION

Abian da euskara sustatzeko Euslan egitasmoa ULMA Constructionen

ULMA Constructionek Eusko Jaurlaritzaren Euslan egitasmoa jarri du abian, 2014an Bikain Euskararen Kalitatearen zilarrezko ziurtagiria lortu ondoren.

Euslan egitasmoa hamabi industri enpresatan hasi dute eta helburua da enpresako lan harremanetan euskara nagusi izatea. Horretarako, Jaurlaritzak diru laguntza emango die enpesei eta, horrekin batera, aholkularitza ere jasoko dute Gipuzkoako Elay enpresaren eskutik, bera izango baita Euslan programa pilotua koordinatu eta dinamizatuko duena.

ULMA Constructionek, beste hamaika

enpresek bezala, konpromisoa hartu du 2017rako %20 igotzeko euskararen erabilera enpresa barruko lan harremanetan

eta hizkuntz paisaian. Helburuen ebaluazioa egiteko, 2017an Bikain ziurtagirian parte hartuko du. *



“Atzerriko hornitzaile izateak erronka handia eragin zigun Koreako bezeroen konfiantza gureganatzeko orduan”

BRAD CHOI, ULMA Pipingeko ordezkari komertziala Hego Korean

4 urte igaro dira ULMA Pipingek Korean ordezkari komertziala ireki zuenetik. Urte baten buruan, Brad Choi ordezkari hasi zen, hango merkatuan negozioa zabaltzeko eginkizunarekin, eta horretarako harremanetan jarri zen mundu mailan proiektu energetikoen merkatua gidatzen duten ingeniariak eta ontziola nagusiekin.

Brad (Tae-Yong) Choik 39 urte ditu, ezkondua da eta bi seme-alabaren aita. Korean jaioa izanik, oso ondo ezagutzen du ULMA Piping helburuko sektorea, entzute handiko konpainietan egin baitu lan, hala nola S&S Valve Co., Ltd konpainian, zeina espezializatuta dagoen balbula kriogenikoen fabrikazioan, ontziolen sektorerako, eta balbula berezietan, petrolio eta gas plantetarako.

Bradek gogoratzen duenez, ULMA Piping sartzeko aukera moduan bizi izan zuen, arlo pertsonalean zein profesionalean. **“Ordezkari izan naizen hiru urteetan Koreako EPC ingeniariarekin izan ditut esperientziak, eta hori erronka komertzial handia izan da. Atzerriko hornitzaile izateak erronka handia eragin zigun Koreako bezeroen konfiantza gureganatzeko orduan. Uste dut talde lanean, Espainiaren eta Korearen artean, oso emaitza onak lortu ditugula. Garrantzitsuena da talde bakar eta sendoa dugula. Asko ikasi dut”.**

Ordezkari lanetan aritu den urteetan, Bradek aitortzen duenez, Samsung Shaybah izan zen ingeniariak proiekturik handienetakoa, bere neurriagatik ahalegin

handia eskatu baitzuen denon aldetik. Nahiz eta, pertsonalki, Bradek onartzen duen beste proiektu bat nabarmenduko lukeela, bere esijentziagatik, eta hori SK Jazan Clad Spool da. **“Urtetan eginahalak eta bi egin nituen kontratua ixteko eta, lortzeko puntuan egon ginen arren, azkenean ezinezkoa izan zen, eta horrek loa galarazi zidan niri eta uste dut talde osoari”** gogoratzen du.

Korear zein espainiar langileek, kulturaren eraginez, jarduteko modu desberdinak izan ditzaketela ematen duen arren, Bradek dioenez **“Benetan harrituta nago zein antzekoak garen ikusita. ULMA hasi aurretik aurreiritzi bat nuen, eta hori zen uste nuela korearra zela munduko langilerik gogorrena, eta Europa jaiegun mordera duten enplegatuen paradisua zela. Oker nabilen, nahiko antzekoak gara, eta batez ere egiazatu nuen euskal kultura eta korearra oso antzekoak direla, uste dut gure tradizio historikoagatik, egia bada ere jaien kopuruaren aldetik ez dugula antzik”** dio txantxetan.

Parekotasun hori bezeroekin egunero duen traturaren eraman daiteke, Bradek deskribatzen duenez, **“Hasieran bilera egiten dut bezeroarekin, entzuteko eta zer behar duen jakiteko. Batzuetan euren kexei erantzuten diet, eta gehienetan –irribarrezberaien historia pertsonalak ere entzuten ditut. Uste dut harreman komertzialean bezeroari ulertzea guztia dela”.**

Horrez gain, Bradek dio korear bezeroek ez dutela ezagutzen ULMA Piping izaera kooperatiboa, ez dakitela ULMA Taldeko eta MONDRAGON Korporazioko parte direla: **“Bezero berri bati gure enpresa**



aurkezten diodan bakoitzean ULMAren sustraiei buruz hitz egiten diot, elementu bereizgarria baita, baina gauza ezezaguna korear merkatuan”.

Merkatu horretan bidea egitea zein zaila den ohartuta dagoen arren, Brad ziur eta baikor dago ULMA Pipingek Korean duen Ordezkariaren etorkizunari buruz. Bere iritziz **“Gure helburua da ULMA bertako hornitzaile moduan ezagutzea. Horrek esan nahi du talde indartsu eta sendoa behar dela Korearen eta Espainiaren artean. Gaur egun oztopo askori egin behar diegu aurre. Uste dut, gaur egun jasaten ari garen arazoak konpontzen saiatzen garen bitartean, etorkizun hurbilean lortuko dugula”.**

“Uste dut harreman komertzialean bezeroari ulertzea guztia dela”

ULMA Fundazioa, beste urte bat elkartasunean buru-belarri

Laburpen txiki honetan 2015. urtean garatutako egitasmo nagusien errepassoa egiten dugu.

ULMA Fundaziotik, eta gure onuradun guztien izenean, eskerrak ematen dizkizugu zure laguntza ezin baliotsuagotatik.



ULMA Fundazioak 2015. urtean egindako hainbat egitasmoren argazkiak >>

| Urtarrila-Otsaila

ULMA Fundazioak lehen mahiako premietarako, elikagaiz eta higienerako produktuz betetako poltsak eman zituzten langileen elkartasuna jaso zuen, Hondurasko ACOEseko kideei emateko, eta horiek guztiak martxoan bidali zen kontainerrean gehitu ziren, Hondurasen beharrik handiena duten etxeetan banatzeko.



>> Raul Garcia eta Natxo Santos

| Martxoa

Ilunbeko irteera tradizionala Gipuzkoa Basket ikusteko, non ULMA Taldeko bazkide eta langile ugari elkartu ziren, Oñatitik hiru autobusetan abiatuta, senideekin batera kirol ekitaldi batez disfrutatzen.

Azaroan Mundukideren erakusketa ibiltaria egon zen, bere 15. urteurrena ospatzeko eta kooperatibisten artean euren lana ezagutarazteko. Eta abenduan oñatiar margolari handien koadroak, horien artean ULMAko erretiratuenak ere, tartean Vicente Elgueroenak.

| Maiatza-Abendua

ULMA Fundazioak ACNUR- Errefuxiatuentzako NBEren Goi Komisarioarekin lankidetzan jardun zuen urtearen lehen zatian, langileen artean haurren malnutrizioaren aurka borrokatzeko fondoak biltzeko egitasmo batean, mineralaz eta bitaminaz aberastutako

barratxo energetikoak bidaltzeko.

Eta udazken-neguan, ACNURekin bat eginda, ULMAk siriar errefuxiatuen krisian laguntzeko kanpainan parte hartu zuen, lankidetzarako bideak irekiz, eta bazkideek ekarpen solidarioa eginez, abenduko nominatik deskontatuta.



>> Boluntario bat haur errefuxiatu bati laguntzen

| Uztaila

Bisita gidatua Arrikruzteko kobazuloetara, pasarela kanpo, ULMA Fundazioarentzat; bertan espeleologiako ibilbide bat egin zen, "espeleolotxiki" izenaren pean, etxeko txikiarekin esperientziak disfrutatzen eta, aldi berean, estatuan aitzindaria den kokapen arkeologikoetako eta

Gipuzkoako kobazulorik zabalenetakoa dena ezagutzeko.

| Uztaila-Urria

Eskularen lehiaketa tradizionala gure bazkide eta langileen haurrentzat, aurten "Birziklapena" hartuta gaitzat. Aurtengo edizioan 50 lan baino gehiago jaso ziren, material birziklatua erabilia egindakoak, oso originalak eta sormen maila altukoak. Irabazleentzako bi bizikletak, oraingoan, Ajofrinera (Toledo) eta Arrasatera (Gipuzkoa) joan ziren joan den urriaren 15ean. Haur irabazleak, Daniel Martin, 4 urtekoa, eta Lide Zubia, 10 urtekoa, ULMA Constructioneko langileen seme-alabak dira.



>> Maddi ipuin kontalaria sari banaketan haur parte hartzaileekin interakzioan

| Urria

ULMA Fundazioak, 2009an bere borondatez Nazio Batuen Mundu Itunari atxiki eta gero, 2014. urtean egindako aurrerabideari buruzko txostena eman du, giza baliabideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren kontrako borrokaren arloan funtsezko erantzukizunak betetzen dituela berresteko.

| Urria-Azaroa

ULMA Argazki Lehiaketaren X. edizioa abiarazi zuen, aurten "Gure-gureak" gaiarekin, eta 2016ko egutegia jantziko duten argazkiak bilatzen genituen. Parte hartzaileen artean eguberri otarre zoragarri bat zozketatu zen eta hamabi argazkirik onenak ULMAk 2016rako prestatu duen egutegi berrian ikusiko dira.

| Azaroa

Mundukideren erakusketa ibiltariari amaierako puntua jartzeko, ULMA Fundazioarekin duen lankidetzaren fruitu, azaroaren 26an Miren Amurizak jardun zuen ULMA taldearen auditoriumean, saio hau eskaintzeko: Kapulana bat zintzilik. ULMA langileak eta Oñatiko lagunak

inguratu ziren sentimendu eta grinaz beteriko emanaldia ikustera. Arrakasta erabatekoa.

| Abendua

Aloña Mendi Kirol Elkartek, txirringularitza sailean, 50 urte beteko ditu datorren 2016an. Arrazoi hori tarteko, ULMAk txirringularien ekipamenduan diseinatzea erabaki du. Diseinurako egindako bi proposamenei dagokien barruko kolektiboaren iritzia eskatzen dugu, bozketa bidez, Aloña Mendi txirringularitza taldeak 50. urteurrena dela-eta jantziko duen ekipamendua aukeratzeko. Gainera, aurreko urteetan bezala, 2016ko lehen hiruhilekoan txirringularien ekipamendua erosteko aukera ere eskainiko da.

Eta abenduarekin batera Gabonak iristen dira. Aurtengo Gabonak zoriontzeko, ULMAk Mundukiderekin eta horren postal solidarioarekin bat egiten du. Postal horien bitartez jasotako fondoak Mundukidera bidaliko dira, gaur egun diharduen herrialdeetan ekarpena egiteko helburuarekin: Mozambique, Kuba eta Brasil.

ULMA Taldearen elkartasunak eta konpromisoak **krisiaren eragina jasan duten pertsonak babestu ditu**

Krisiaren ondorioz sufritutako nahasmendu ekonomikoak eragin handia izan du Euskadiko industri sarean, eta enpresa asko plantillak berregituratzera behartu ditu.

Koiuntura ekonomikoaren egoera larria gorabehera, kultura kooperatiboa, Euskadin sustrai sendoak dituen, oinarritzko aliatu bihurtu da eta, horri esker, ULMA Taldeak eta MONDRAGON Korporazioak atzeraldiaren ondorioak arintzeko elkartasun sarea hedatu ahal izan dute.

Kooperatibismoaren oinarri diren lankidetzaren printzipioak dira asalduzko aldi honetan ULMA Taldeak abian jarritako ekintzen zutabea. Horren guztiaren misioa kasu bakoitzari irtenbiderik onena bilatzea izan da.

Helburua lortzeko bidean gaude. ULMAk krisi garaian lana galdu zuten pertsona guztiei irtenbidea ematea lortu du, baina, horrez gain, MONDRAGON Korporazioko kooperatibetako beste 100 bazkideren etxe ere bihurtu da.

Horren testuinguru zailan sartuta, ULMA Taldeak gogor egin du lan birkokapenen politika aktiboa aurrera eramateko, krisiaren eragina nozitu dutenek beren ibilbide profesionala berriz bideratzeko aukera izan dezaten. Horri lotuta, lan horietan sartutako eragile guztiek egindako kudeaketa lanaren inguruko balorazio

positiboa egin du.

Historian zehar une askotan errepikatu izan den arazoa da, eta ULMA Taldeko negozio ugarietan eragin du, baina Taldeak beti egin izan dio horri aurre. Oraingoan, 2009. urtetik, hainbat negoziok sufritu dituzte krisiaren eraso eta horrek enpleguan dituen eraginak eta, horri lotuta, erantzuna eman ahal izateko beharrezko neurriak hartu izan dituzte.

MONDRAGON mailan, arazoa areagotu egin zen 2013. urtearen amaieran, Fagor Etxetresnak kooperatibaren egoerarekin, zeina Taldeko beste kooperatiba batzuen egoera zailari gehitu zitzaion.



Zehazki, 2014ko lehen hiruhilekoan, ULMA Taldeko 61 lagun zeuden oraindik ere birkokatu beharrean haien helmuga

profesionalekin aurrera jarrai zezaten. ULMA Taldeak bazkide haietako 55 Taldeko zortzi negozioetakoren batean kokatzea lortu zuen. Beste 6 bazkidek, aldiz, postu bat lortu zuten MONDRAGON Korporazioko beste kooperatiba batzuetan.

Hilabeteek aurrera egin ahala, gainera, kopuru horiek hobekuntza nabarmena izan dute. 2014ko abenduan, berregituraketaren eragina jasan zuten bazkideak ia erdira gutxitu ziren ULMAren, eta 33 ziren. Kopuru horretatik, 27 ULMAren baitako enpresen familian birkokatu zituzten eta beste 6 Korporazioko beste enpresa batzuetara joan ziren.

Gaur egun, ULMAko 21 lagunek ez dute lanpostu kontsolidatua, baina inor ez dago langabezia; izan ere, 18 ULMA barruan

ULMAKO BAZKIDE KOOPERATIBISTAK birkokatuak



birkokatu dituzte, eta 3 MONDRAGON Korporazioko beste enpresa batzuetara joan dira.

Hala, 18 hilabeteko epean, eragindako pertsona kopurua heren batera gutxitu da, eta gaur egun ez dago inor langabezi egoeran. Gehienek ULMA Taldearen baitan topatu dute irtenbidea.


2009. urtean krisia hasi zenetik, ULMA Taldeko negozioetan behin betiko birkokapena 45 bazkidek topatu dute. Horri, gainera, aurre-erretiroak kudeatu izana eta adostutako irteera batzuk gehitu behar zaizkio. Horiek guztiek erronkari aurre egiten lagundu dute.

Baina, ULMAk ez du krisiak eragindako langileen mugimenduak konpontzea bakarrik lortu bere negozioen barruan; izan ere, krisiaren inpaktua gogortasun handienarekin jasan duten MONDRAGON Korporazioko beste kooperatiba batzuetatik iritsitako bazkideentzako harreragune ere bihurtu da.

Zortzi negozioen arteko lankidetzari esker, Taldea erreferente bihurtu da MONDRAGON Korporazioko bazkideak jasotzeko garaian.

Joan den urteko lehen hiruhilekoan, ULMAk MONDRAGON Korporazioko kooperatibetatik iritsitako 56 bazkide birkokatu zituen, egoeraren arabera. Gaur egun, kopuru hori 100era igo da, eta horrek agerian uzten du Taldea krisiaren

Bazkide kooperatibistak ULMAN BIRKOKATUAK



eragina sufritu duten pertsona askoren etxe berri bihurtu dela.

MONDRAGON Korporazio osoari dagokionez, 2013aren amaieran, langabezia estrukturalako espedienteen eragina jasandakoak 1.806 ziren guztira, baina datu hori gutxitzea lortu da, Korporazioa osatzen duten kooperatibek beren gain hartutako konpromisoari eta LagunArok eta langileen mugimenduak kudeatzeko modu espezifikoan eraturako Enplegu Bulegoak egindako lanari esker.

Uneotan, egoera horretan 1.189 pertsona daude. Horietako 967 Korporazioko kooperatibaren batean birkokatu dituzte, eta 148k lehenengo kooperatiba berean jarraitzen dute lanean behin betiko irtenbidearen zain.

“Birkokapenen bolumena kooperatiba guztien elkartasun eta konpromiso mailaren

erakusgarri argia da, baina baita lan hori egitea erraztu duten pertsona guztiena ere.

Eskerrik asko guztiei, birkokatu diren pertsonen zuzendutako irribarre eta hitz atsegin bakoitzagatik. Keinu txiki horiek dira garrantzi handiena dutenak.

Enpleguaren arazoa konpontzen laguntzen dugu gure balioetan dagoelako, halakoak garelako eta ULMA garelako”.

Zortzi negozioen arteko lankidetzari esker, Taldea erreferente bihurtu da MONDRAGON Korporazioko bazkideak jasotzeko garaian.

ULMA Taldeko **beste talentuak**

ULMA Taldeko Erik Fuente eta Asier Mugarza langileek motorrarekiko eta txapelketako lasterketekiko duten zaletasuna partekatzen dute lanetik kanpo.

Geldiezinak dira lanean eta are gehiago handik ateratzen direnean. Erik Fuentek eta Asier Mugarzak hainbat gauza partekatzen dituzte. Biak dira Gipuzkoako Oñati udalerrikoak, ULMA Taldean egiten dute lan eta antzeko adina dute, baina beren bideak elkartu dituen lotura berezia motor, rally, lasterketa eta abiadurarekiko sentitzen duten pasio sakona da.



Irudia: Sergio Gil—Rallyak.eus
Erik Fuente eta Asier Mugarza >>

| Abiadurarekiko pasioa

Mugarzak 38 urte ditu eta ULMA Packagingen egiten du lan. Lasterketekiko zaletasuna haurtzaroan sortu zitzaion, eta nahiz eta jakin kirol garestia eta arriskatua dela berea, ez du atzera egiteko inolako asmorik.

“Lasterketekiko eta txapelketarekiko zaletasuna haurtzaroan jaio zen. Aitarekin eta anai-arrebekin joaten nintzen txikitan. Egia esan, nire lagun talde guztiari gustatzen zaio”, dio Asierrek.

2002an hasi zen lehiatzen Citroën Saxo autoarekin, baina handik bi urtera ibilgailua saldu eta 2010era arte ez zion berriro ekin bere afizioari. Urte hartan, mendiko 4. klaseko Euskadiko txapelduna izan zen, lehiatutako 6 lasterketetatik 5 irabazi ostean, Renault Clio Sport bat gidatuta.

Auto hori bera du gaur egun ere lagun, eta ez du bertatik jaitsi nahi.

2011n, istripu baten ondorioz, txapelketak utzi behar izan zituen eta, handik urtebetera, azken lasterketan txapelketa jokoan zela, lehen postua galarazi zion ezbeharra nozitu zuen. Horren ondorioz, kategorian Euskadiko txapeldunorde izendatu zuten.

2013an ezin izan zen lehiatu eta, joan den urtean, aurrekonturik ez zuelako, hiru proba bakarrik egin ahal izan zituen.

“Babesten gaituzten babesleak ditugu. Zaletasun garestia da; kontuan izan behar da gurpil bakoitzaren kostua 300 eurokoa dela”, dio Asierrek. Bere laguntzaileen sare zabalaren baitan dago ULMA Taldea.

Gidaria arduratzen da ibilgailuaren

mantentze eta egokitze lanez ia oso-osorik. Salbuespen bakarra txaparekin eta pinturarekin lotutako lanak izaten dira.

“Beti neu arduratzen naiz. Mekanikako behar adinako ezagutzak ditut”, baieztatu digu.

Bere alboan esertzen da Erik Fuente, iaztik pilotukidea dena. 34 urte ditu eta ULMA Orgetan egiten du lan. 2015. urte honetan, 9 lasterketa egin dituzte elkarrekin. Azkena Gernikako rallya izan zen: eskakizun handiko proba luzea da, 10 tarte biltzen ditu, eta egun osoa irauten du.

Lasterketa aurretik, Asierrek eta Erikek elkarrekin egiten dute ibilbidearen azterketa lehiaketako antolatzaileek ezarritako arauen arabera, eta ibilbidearen ezaugarrien inguruko oharrak hartzen



Irudia: Sergio Gil—Rallyak.eus

Asierri 2010. urtean 4. klaseko Euskadiko txapeldun eta 2011n txapeldunorde bihurtzen lagundu zion autoa >>

dituzte. Ezinbestekoa da kurbak zailtasun mailaren arabera neurtzea, tarte bakoitzean arriskurik gabe zer abiadura har dezaketen jakiteko.

“Estresa askatzea ahalbidetzen didan errutinarekiko deskonexio modukoa da. Zaletasun arriskutsua da, baina aurrera jarrai dezakegun bitartean, dena ematen jarraituko dugu”, dio Asierrek. Ez du ahaztu nahi bere ametsarekin aurrera jarraitzen laguntzen dioten guztiak.

“Eskerrak eman nahi dizkiet babesle, lagun eta senide guztiei haien laguntzagatik; izan ere, haiek gabe, ezinezkoa litzateke lasterketetan lehiatzea eta parte hartzea”, hausnartu du.

Bere ustez, Eriken lana eta lankidetzaren ezinbestekoak dira; bere iparrorratza, gidaria eta orientazioa izaten da lasterketetan.

“Oso pilotukide ona da. Rol hori jokatzeko ezinbestekoa da oso pertsona lasaia izatea”, gehitu du.

Erikek ere iraganean atzera egiten du, abiadurarekiko bere pasioa noiz hasi zen oroitzenetik berreskuratu nahian. Hamalau urte zituen bera baino zaharxeagoak ziren eta gidabaimena zuten lagunekin Oñatiko autokrossera, autoarekin mendian ibiltzera eta lasterketak ikustera joaten zenean. Duela lau urte bihurtu zen lur gaineko eta asfaltoko lehiaketetan pilotukide.

“Beti gustatu izan zaizkit autoak. Gehien gozatzen dudana izaten da bi lagun artean erabakiak horren denbora gutxian hartu behar direnean sortzen den tentsio unea. Hau da, arriskua gure gain hartze horrek ematen digun motibazioa. Ateratzen zarenean, tentsioan zaude, eta helmuga zeharkatzen duzunean, aldiz, lasaitasun sentazioa bizi duzu”, azaldu du Erikek.

Bere ustez, lur gainean egiten diren lehiaketak asfalto gainekoak baino zailagoak dira. Izan ere, horien araudiak aztertzeko buelta bakarra egiten uzten du. Hori dela eta, ezin da zuzenketarik egin. Arrakastarako edo porroterako aukera bakarra da, guztia abiadura biazian.



Irudia: Sergio Gil—Rallyak.eus

“Lasterketekiko eta txapelketarekiko zaletasuna haurtzaroan jaio zen.”

Asier Mugarza
ULMA Packaging

“Onena izaten da bi lagun artean erabakiak horren denbora gutxian hartu behar direnean sortzen den tentsio unea.”

Erik Fuente
ULMA Orga Jasotzaileak

ULMAren 2016ko Ekipamendu BERRIA Txirrindularitzarako

Hautatu aukera gustukoena eta zuretzat bat irabazi ahal izango duzu!



ULMAk 2016ko txirrindularitzako ekipamendu berriaren diseinua hautatzen zuk parte hartzea nahi du. Oraindik ez baduzu bozkatu, garaiz zabilta. Zure kooperatibako harreran edota Giza Baliabideen departamentuan ontziak jarri ditugu, txarteekin, gustukoen duzun diseinua hautatzeko. Bozkatzeko azken eguna: abenduaren 11.

Gainera, bete zure datuak bozketa txarteletan, eta irabazten duen ekipazioaren zozketan parte hartuko duzu. Animatu!

2016ko lehen hiruhilekoan ekipamendu berria erosteko aukera izango duzu. Zure eskaria noiz egin dezakezun jakinaraziko dizugu, baita prezioa ere.

ERRETIROAK: 2015eko irailak 1 - abenduak 31

José Julián
Sanz Osaba



Arantza
Biaín Cortabarría



Pedro
Guridi Sagastizabal



José Mª
Maiztegi Bengoa



Germán
Maiztegi Arrue



Justo José
Cerqueira Riveiro

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;
Beti bezala, Iradokizunetarako Postontzia
ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak
bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamendu Zentralak.
Garagaltza auzoa 51 – 22 p.k.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref. Begira.
Helbide elektronikoa: begira@ulma.com

Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu!
Zorionak